

Donostia, 2025eko martxoaren 27a

## **ALDAKETAK MARTXOAREN 30EAN, IGANDEAN, EGINGO DEN MANIFESTAZIOA DELA ETA**

**Martxoaren 30ean, igandean,** manifestazioa egingo da Donostian, **11:45etik 12:45era** gutxi gorabehera, eta ondorioz aldaketa hauek egingo dira Dbuseko zerbitzuetan:

### **•5-Benta Berri, 16-Igeldo, 18-Seminarioa eta 25-Benta Berri-Añorga:**

- Erdialderantz: bukaerako geltokiak Urbietan 6an eta Urbietan 20an edukiko dute, hurrenez hurren.  
Askatasunaren Hiribidea 31ko geltokia, Okendokoak, Boulevardekoa eta Gipuzkoa Plazakoa kenduko dira eta **Urbietan 6ra edo Urbietan 20ra** eramango dira, hurrenez hurren.
- Antigu alderantz: ohiko ibilbidea Urbietan 6-20tik aurrera.  
Boulevardeko geltokiak eta Gipuzkoa Plazakoa kenduko dira eta **Urbietan 6ra edo Urbietan 20ra** eramango dira, hurrenez hurren.

### **•21-Mutualitateak-Anoeta, 26-Amara-Martutene eta 28-Amara-Ospitaleak:**

- Erdialderantz: ez dute ibaiaren aldetik jarraituko, eta Antso Jakitunetik Mendeurrenerantz eta Easo kalerantz jarraituko dute. Askatasunaren Hiribidetik Urbietan kalerantz iritsiko dira eta Urbietan 6an-12an egingo dituzte bukaerako geltokiak.  
Okendoko geltokia, Boulevardekoa, Gernikako Arbolakoa eta M<sup>a</sup> Cristina Zubikoa kenduko dira. **Urbietan 6ra eta 12ra** eramango dira.
- Amara alderantz: ohiko ibilbidea Urbietan 6-12tik aurrera.  
Boulevardeko geltokiak kenduko dira eta **Urbietan 6ra eta 12ra** eramango dira.

### **•19-Aiete-Bera Bera:**

- Erdialderantz: Aldapetatik jaistean Easotik eta Askatasunaren Hiribidetik sartuko da, eta bukaerako geldialdia Urbietan 6an egingo du.  
Okendoko eta Gipuzkoa Plazako geltokiak kenduko dira. **Urbietan 6ra** eramango dira.
- Aiete alderantz: ohiko ibilbidea Urbietan 6tik aurrera.  
Gipuzkoa Plazako geltokia kenduko da. **Urbietan 6ra** eramango da.

### **•8 Gros-Intxaurrondo, 13-Altza, 14-Bidebieta eta 29-Hego Intxaurrondo Sur:**

- Erdialderantz: autobusak Colón pasealekuraino baino ez dira iritsiko, eta Mirakruz-Pinudian egingo dute bukaerako geldialdia (**8 linea**, Iparragirren).

Kursaaleko geltokia, Boulevardekoak, Gipuzkoako Plazakoa eta Askatasunaren Hiribidekoa kenduko dira. Mirakruzera eramango dira (**8 linea** Iparragirrerera).

- Auzoetarantz: ibilbide normala Mirakruz-Pinuditik (8 linea Iparragirren).

Boulevardeko geltokiak, Gipuzkoa Plazakoa eta Askatasunaren Hiribidekoak kenduko dira. Mirakruzera eramango dira (**8 linea** Iparragirrerera).

### • **9-Egia-Intxaurrondo eta 42-Aldapa-Egia:**

- Erdialderantz: autobusak Frantzia pasealekutik, M<sup>a</sup> Cristina Zubitik eta Foruen pasealekutik iritsiko dira Santa Katalina Zubiraino (bukaerako geltokia), eta ohiko ibilbideari ekingo diote berriro.

Euskadi Plazako geltokia, Askatasunaren Hiribidea 6koa eta Okendo 18koa kenduko dira. **Santa Katalina Zubira** eramango dira.

- Egia alderantz: Santa Katalina Zubitik (bukaerako geltokia) beren ibilbideari berrekingo diote Egiarantz.

Okendo 18ko geltokia eta Askatasunaren Hiribidekoa kenduko dira. **Santa Katalina Zubira** eramango dira.

### • **31-Intxaurrondo-Ospitaleak-Altza:**

- Aiete alderantz: Lapurdi plazatik sartu eta Colón pasealekutik, Frantzia pasealekutik, FG Lorcatik, Agirre Lehendakariaren Zubitik, Pio XII.etik eta Antso Jakitunaren kaletik igaroko da, eta Easo kaletik Lizarra kalera iritsiko da (geldialdia behin-behineko zutoinean). Hortik aurrera, bere ohiko ibilbideari ekingo dio berriro.

Kursaaleko geltokia, Boulevardekoa, Urbieta 6koa eta Larramendikoa kenduko dira, eta **Colónera eta Lizarra kalera** lekualdatuko dira.

- Intxaurrondo-Altza alderantz: Aldapetatik jaistean, Easotik (geldialdia Easo 19an), Askatasunaren Hiribidetik, Urbietatik, Parke kaletik, Gernikako Arbolatik, Foruen pasealekutik (17 linearen geldialdiak) eta Santa Katalina Zubitik (geldialdia behin-behineko zutoinean) joango dira. Mirakruzetik ohiko ibilbideari helduko diote berriro.

Askatasunaren Hiribidea 15eko geltokia kenduko da, eta **Easo 19ra eta Santa Katalina Zubira** lekualdatuko dira.

### • **33-Larratxo-Intxaurrondo-Antiquo-Berio:**

- Antiquo alderantz: Colón pasealekutik aurrera, Frantzia pasealekutik, Iparreko Geltokitik (geldialdia), F.G. Lorcatik, Agirre Lehendakariaren Zubitik, Zuaznabar kaletik, Pio XII.etik, Izostegitik eta Pio Barojatik joango da Zumalakarregiraino. Hemendik aurrera ohiko ibilbideak berreskuratuko ditu.

Askatasunaren Hiribidea 18ko geltokia, Urbieta 20koa eta Zubieta-San Martin-ekoa kenduko dira. **Colón pasealekura eta Iparreko Geltokira** eramango dira.



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

- Gros alderantz: Kontxa pasealekutik aurrera, Zubietatik, Askatasunaren Hiribidetik, Urbietatik (geldialdia Urbieta 38an eginez), Mendeurrenetik, Gernikako Arbolatik, Foruetatik eta Santa Katalina Zubitik (geldialdia behin-behineko zutoinean) joango da, eta ohiko ibilbideari ekingo dio berriro Mirakruzerantz.

Askatasunaren Hiribidea 21 eta Askatasunaren Hiribidea 3 geltokiak kenduko dira, eta **Urbieta 38ra eta Santa Katalina Zubira** lekualdatuko dira.

#### • **36-San Roke-Aldakonea:**

- San Roke alderantz: Frantzia pasealekutik joango da, Iparreko Geltokitik, Primetik, Morazatik, Urbietatik, Pedro Egañatik, Easo kaletik eta Askatasun Hiribidetik, eta Urbieta 12an bere ohiko ibilbideari helduko dio.

Euskadi Plazako geltokia eta Askatasunaren Hiribidea 20koa kenduko dira, eta **Iparreko Geltokira eta Urbieta 12ra** lekualdatuko dira.

- Aldakonea alderantz: Gernikako Arbolatik-Foru pasealekutik aurrera ez da Etxaide kalera sartuko. Santa Katalina Zubiraino (geldialdia behin-behineko zutoinean) joango da, eta ohiko ibilbidea egiteari ekingo dio.

Askatasunaren Hiribidea 3ko geltokia kenduko da, eta **Santa Katalina Zubira** lekualdatuko da.

#### • **37-Rodil-Zorroaga:**

- Zorroaga alderantz: Colón pasealekutik joango da, eta Frantzia pasealekutik, eta hortik aurrera ohiko ibilbidea egiten jarraituko du.

Kursaaleko geltokia, Gipuzkoa Plazakoa eta Askatasunaren Hiribidea 7koa kenduko dira, eta **Colónera eta Iparreko Geltokira** lekualdatuko dira.

- Rodil alderantz: Gernikako Arbolatik-Foru pasealekutik aurrera ez da Etxaide kalera sartuko. Santa Katalina Zubiraino (geldialdia behin-behineko zutoinean) joango da, eta ohiko ibilbidea egiteari ekingo dio.

Askatasunaren Hiribidea 3ko geltokia kenduko da, eta **Santa Katalina Zubira** lekualdatuko da.

#### • **45-Renfe-Bus Geltokiak-Antiguo-Aiete:**

- Antiguo alderantz: Iparreko Geltokitik (geldialdia), F.G. Lorcatik, Agirre Lehendakariaren Zubitik, Zuaznabar kaletik, Pio XII.etik, Izostegitik eta Pio Barojatik joango dira Zumalakarregiraino. Hemendik aurrera ohiko ibilbideak berreskuratuko dituzte.

Askatasunaren Hiribidea 18ko geltokia, Urbieta 20koa eta Zubietara-San Martin-ekoa kenduko dira. **Colón pasealekura eta Iparreko Geltokira** eramango dira.

- Geltokiak alderantz: Kontxa pasealekutik aurrera, Zubietara, Askatasunaren Hiribidea, Urbietara (geldialdia Urbieta 38an eginez), Mendeurrenera, Gernikako Arbolar, Foruetara eta Santa Katalina Zubira joango da (geldialdia behin-behineko zutoinean), ohiko ibilbideari ekingo dio berriro Geltokietarantz.



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

Askatasunaren Hiribidea 31ko geltokia kenduko da, eta **Urbietta 38ra eta Santa Katalina Zubira** lekualdatuko da.

• **46-San Antonio-Morlans:**

- Morlans alderantz: Colón pasealekutik aurrera, Frantzia pasealekura joango da, Iparreko Geltokira, Prim, Moraza, Urbietta, Pedro Egaña, Easo, Askatasunaren Hiribidea eta Urbietta 12tik aurrera bere ibilbidea berreskuratuko du.

Askatasunaren Hiribidea 20 geltokia kenduko da. **Colónera eta Urbietta 12ra** eramango dira.

- San Antonio alderantz: M<sup>a</sup> Cristina Zubitik ez da Etxaide kalera sartuko. Santa Katalina Zubirantz jarraituko du (geldialdia behin-behineko zutoinean) eta bere ohiko ibilbideari ekingo dio berriro.

Askatasunaren Hiribidea 3ko geltokia kenduko da eta **Santa Katalina Zubira** lekualdatuko da.

Informazio gehiagorako, Dbuseko webgunera jo ([www.dbus.eus](http://www.dbus.eus)) edo 900 840 146 telefono zenbakira deitu.

